

**Kataluniako
galdeketaren aldeko
mozioa onartu da
Udaletxean**

**Gazte lokalak
arautzeko parte
hartze prozesua hasi da**

**Udal aurrekontu
berriekin batera,
jolas parkeak
berrituko ditu Udalak**

noaua

**Asteburu honetan hasiko da
NOAUA! Kulturaldia**





antenas
Telemar

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



54 egun falta dira!

boletina eskuratzen dizugu
diru laguntza eskatzeko!

aurrekontua konpromisorik gabe



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

6855 zenb. telekomunikabide erregistroan

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpiⁿ

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditán

Kilometroak eta NOAUA!ren arteko hitzarmena sinatu da

Iruditán dituzue ezker eskuin, NOAUA! Kultur Elkarteko lehendakari Idoia Torregarai, eta Udarregi Ikastolako lehendakari eta zuzendaria, Xabier Alustiza eta Mariaje Imaz hurrenez hurren. Ikastolako geletako batean, mahai baten bueltan, elkarlanerako ituna sinatzen.

Gogoan izan, Udarregi Ikastolak eta Usurbil lek hartua dute jada, 2015eko Kilometroak antolatzen lekukoa. Urbete barru ospatuko den ekimenari begira, elkarlanerako hitzarmena sinatu dute NOAUA! Kultur Elkarreak eta Udarregi Ikastolak. Datorren ikasturte honetan, "Kilometroak ekimenean bi erakundeek arteko elkarlana aurreikusten da, bientzat lan eta jarduera eremu naturala delako euskara eta herrigintzan lanean aritzea. Ekimen honek Usurbil eta herritarrentzat izango duen garrantzia handia izango da, eta indarrak batzeko nahia aurkeztu dute bi erakundeek", hitzarmenak dioenez. Nahi hori orain, testu batean jasoa geratu da.

Hitzarmen honen arabera, "Kilometroak" urte honetan, NOAUA!k tarte berezia eskainiko



Idoia Torregarai NOAUA!ko lehendakaria, Xabier Alustiza Udarregi ikastolako lehendakaria eta Mariaje Imaz, Udarregi ikastolako zuzendaria.

dio aldizkarian, 2015eko urriaren 4an Usurbil lek ospatuko den ekimenari.

Web orri eta sare sozialen bidez ere berri emango da noski. Bestalde, Udarregi Ikastolak

interesgarriz jo dezakeen informazioa helaraziko dio NOAUA! elkarteari, "eta bi aldeetako komunikazioa bereziki zainduko dute bi erakundeek".

Laburrean

Etxean sagardoa egiten ikasi nahi duenarentzat

Azaroaren 15ean, 9:00-13:00 artean Sutegin, Sazar sagardotegiko enologo Fernando Vadillok eta Zapirain sagardotegiko kalitate arduradun Egoitz Zapirainek zuzenduta.

Ikastororako izen ematea eta informazio gehiago: 943 361 114 edo alkartasuna@usurbil.com

Txokoaldeko Erroizpe elkartearen batzarra

Urteko batzarra ospatuko dute, azaroaren 23an, goizeko 11:00etan Txokoaldeko elkartearen bertan. "Elkarteko zuzendaritzak dei egiten die bazkideei etor daitezten, urteko martxaren berri emango baita, diru kontuekin batera", elkartetik adierazi dutenez.

Azaroaren 30ean, 1952koen kinto bazkaria

Duela 62 urte jaiotako usurbildarren bazkaria azaroaren 30ean, 14:30etan Patri jatetxean. Menua 35 euro.

Izen emateko deitu 943 361 380 telefono zenbakira, azaroaren 19a asteazkena baino lehen.

noaUA

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaUA.com // www.noaUA.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaUA.com

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaUA.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

Haurren eskubideen defentsaren bi ikur

Malala 17 urteko pakistandarra eta Satyarthi 60 urteko indiarrak irabazi dute aurten Bakearen Nobel Saria. “Haurren hezkuntzaren alde” eta “umeen aurkako jazarpenaren kontra” egindako lana eta borrokak direla eta saritu ditu Norvegiako Nobel Batzordeak, hain zuzen. Hona hemen bien biografia laburra:

MALALA: Duela urte bete idatzi nuen zutabe honetan beraren gainean, Andrei Sajarof saria eman ziotela eta. Nire gogoetatxoaren izen burua: “boligrafoak eta liburuak fusilen kontra”. Hor aurkituko duzue hemen falta den informazioa. “Gaztea bada ere”, haurren hezkuntzaren alde borroka egiten “urteak” daramatza azpimarratu dute. Gainera, “borroka heroikoa” egin duela eta nekatoen eskubideen ikur dela txalotu dute.

Hamabost urterekin taliban basati batek hiru tiro eman zizkion. Koman luze egon ondoren, onik atera zen eta bere borrokan jarraitzen du. Honela dio: “nire ikasketak serio hartzen ditut, baina

gehien interesatzen zaidana munduko haur guztien eskolatzea da eta horretan saiatuko naiz bizitza osoan”. Historian zehar izan den Bakearen Nobel saririk gazteena da.

SATYARTHI: 1954an jaio zen Indian. Munduan haur gehien lanera behartzen duen herria da India eta Satyarthik 1980ko hamarkadatik dihardu horren aurka. Besteak beste, BBA(Haurtzarora Salbatzeko Mugimendua) erakundearen sortzaile da: haurrak lanera behartzen dituzten lantegiak atzeman eta sarekadak egiten ditu talde horrek. “Ausardia pertsonala erakutsiz (behin baino gehiagotan mehatxu latzak jasan ditu, baita jipoiak ere) eta Gandhiren tradizioari eutsiz, askotariko protesta eta manifestazioak antolatu ditu; guztiak baketsuak eta arreta haurren esplotazioan ipinita”, adierazi du batzordeak.

Satyarthik haurren beharrak ekarri ditu gogora sariaren berri eman diotenean: “ohore bat da esklabotza, behartutako lana eta giza trafikoa sufritzen duten haur horientzat guztientzat”.

Sei urte zituela kontzientzia-

lan zen bere inguruan haur askok jasaten zuen injustiziaz: eskolako lehen egunean konaturatu zen ikastetxeko eskaileretan ume bat zegoela bere aitarekin. Zapatak garbitzen eta konpontzen ari zen eta ez zen ikasgelara joan. Eta egunero berdin. Egun batez aitari galdetu zion ea semea zergatik ez zen joaten ikasgelara. “Nire semea eta ni lanerako jaioak gara” izan zen eran-tzuna. Orduan hartu zuen horrelako haurrei laguntzeko erabakia. Hamaika urterekin testu liburu banku bat antolatu zuen; nerabe zela testu liburu erabiliak eta dirua biltzen aritu zen ume pobreen familiakoei emateko. 1980an, 26 urterekin, ingeniari-tza utzi eta egunkari bat sortu zuen: “The Struggle Shall Continue (borrokari jarraitu behar zaio). Bere kausa horrek mundu osoan oihartzuna izan zezan lortu zuen. 1989an, berriz, Haur Lanaren Martxa Globala sortu zuen.

Bere lorpenak ikusgarriak izan dira: 80.000 haur erreskatatu ditu nagusi mafiosoen hatzaparretatik eta beren bizimodua hobetu. Hiru frontetan

lan egiten du bere erakundeak:

1-Lehen aipaturiko sarekadak egin fabriketan dauden haur eskolaboak askatzeko.

2-Bizitza berri bat eman ume horiei, beroiek hezi eta haurren eskubideen militante bihurtzen saiatu.

3-Mundu osoko kontsumitzaileak kontzientziatu haurrek ekoiztutako produktuak eros ez ditzaten.

Duela gutxi galdetu zioten erlijiosoa al zen eta ezetz esan zuen hitz horri oro har ematen zaion zentzuan behintzat “Hinduismoan hezi ninduten, baina ez dut praktikitzen. Pertsonaia batek hunkitu nau beti: Jesukristok, bere espiritu iraultzaileak. Erljio guztiak sentimendu berak sortu ditu. Errukiak eta gizartearekiko maitasunak. Zentzu horretan bai, erlijiosoa naiz”. Malala eta Satyarthi haurren eskubideen alde egiten den borrokaren bi ikur bilakatu dira.

Santu Guztien bezpera da gaur; bi hauek ikusiko nituzke gustura aldarean, eta ez beste zenbait ikono; hauek bai betetzen dutela ebanjelioko zorion bide hau: “zorionekoak justiziaren gose eta egarri direnak”.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | **Luis Aranalde** | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

Liburuak mailegatzeari loturiko kanonaren aurka

Pren Gobernuaren azken erabaki polemikoa. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, 5.000 biztanletik gorako udalerrietako liburutegi publikoek, mailegaturiko liburu edo erregistraturiko erabiltzaile bakoitzeko kanon bat ordaindu beharko diete egile edo editore elkarreteei. Espainiako Gobernuak Errege Dekretu bidez onartu zuen, uztailaren 18an.

Honen aurka agertu da Usurbilgo Udala, EH-Bilduk urriaren 28an burutu zen osoko bilkurara eramandako mozio baten bidez. Kanona bera eta kanon horren edozein ordainketa ber-

tan behera uztea eskatzen du bi puntuko testuak. Mozioa aurkeztu ostean, PSE-EEko udal ordezkariak testua puntuz puntu bozkatzea proposatu zuen. Edukiaren alde bazegoen ere, kanona ez ordaintzeko mozioak jasotzen zuen eskaera, legea ez betetzea zela, eta honenbestez jarrera arduragabea zela zioen Ricardo Crespok. Puntu horretan, abstenituko zela iragarri zuen ordezkari sozialistak.

Proposamena aintzakotzat hartu zuen udalbatzak eta beraz, testua puntuz puntu bozkatu zuten. Hauek dira mozioko bi puntuak, eta puntu bakoitzaren segidan, udal taldeen bozketen

emaitza:

■ Uztailaren 18ko 624/2014 Errege Dekretuak ezarritako kanona atzera botatzeko eta bertan behera uzteko eskaera egitea, liburu-maileguren eta liburutegiaren alorrean legeek ezartzen dituzten betebeharrak urratzen dituelako.

Bozketaren emaitza: aho batez onartua.

■ Tokiko, foru-aldundietako eta autonomia-erkidegoetako liburutegi publikoetan kanon horren edozein ordainketa bertan behera uztea.

Bozketaren emaitza: gehiengo osoz onartua. EHBildu, EAJ-PNV eta Hamaikabat alde. Abstenzioa: PSE-EE.

Katalanen erabakitze eskubidea bermatzea eskatu du Usurbilgo Udalak

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak igande honetarako, azaroaren 9rako Katalunian deitua dagoen herri kontsulta bertan behera uztearen aurka agertu da udalbatza, aurreko astean burutu zen osoko ohiko bilkuran. Gai honen inguruan, EHBilduk eta EAJ-PNVk adosturiko mozioa aurkeztu zuten. Gehiengo osoz onartu zen; EHBildu, EAJ-PNV eta Hamaikabaten aldeko bozkekin. PSE-EEko udal ordezkaria tesuaren aurka agertu zen.

Herrien eta pertsonen erabakitze eskubidea defendatzen du mozioak. Espainiako Gobernuak eta Auzitegi Konstituzionalak erakutsitako jarreraren aurka agertzen da, eta azken epaitegi honi, kontsulta bertan behera uzteko hartutako erabakian atzera egitea eskatzen dio. Hauexek dira mozioko lau puntuak:

■ Usurbilgo Udalak defendatzen du herriek eta pertsonak beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, Usurbilgo Udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposizioekin eraiki, oinarri demokratikoen eta herriek eta



EH Bildu, EAJ-PNV eta Hamaikabaten aldeko bozka izan zuen mozioak.

pertsonak adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da.

■ Usurbilgo Udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsoarekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiarekin, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitze-ko eskubidearen aurkakoak baitira.

■ Usurbilgo Udalak eskatzen dio Kons-

tituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behinekoz bertan behera uzteko erabakian atzera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beren iritzia.

■ Usurbilgo Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitateari bidaliko dio.

Liburutegiko txokoa

Udazken oparoa Sutegi udal liburutegian

Udazkena mugitua izaten ari da gurean, kanpoko eguraldia bezain beroa, ekintzaz lepo baitago Liburutegia.

Urriko ekintzak primeran joan dira, bikain!: izan Miriam Mendozaren kontaketa saioa (majikoa), izan Liburutegiaren eguna bera (maileguak "goxatuz"), zer esanik ez Udaregi ikastolako DBH 1 eta 2ko ikasleen bisitak, eta amaitzeko, Garbiñe Ubedaren "Hobe isilik" liburuaren inguruko tertulia aberasgarria. Informazio eta irudi guztiak, gure blogean (<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usbil/?p=7107>).

Baina azaroan eta abenduan ere badugu zer ikusi/entzun/ikasi/gozatu; begira egutegia:

Azaroaren 5ean, asteazkena

Arratseko 18:00etan, Xalxo pailazoak 4 urteko neska-mutilentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko du, "Amesgaiztoari Txinbalon" izeneko saioa.

Azaroaren 6an, osteguna

Arratseko 18:00etan, Mikel Suspregei kontalariak (argazkia), 5 urteko neska-mutilentzat "Fraxkitoren errepertoyo galdua" saioa eskainiko du.

Azaroaren 19an, asteazkena

Haurrenganako sexu-abusuei aurrea hartzeko eguna; azaroaren 25a: Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna. Bi egun seinالاتu horiek uztartzuz, erakusketaxo batzuk antolatuko



ditugu Liburutegian Azaroaren 19tik 25era. Informazio gehiago, gure blogean (<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usbil/?p=7156>).

Azaroa eta abenduan zehar

Udaregi ikastolako DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak bisitan etorriko zaizkigu, Liburutegiaren funtzionamendua, zerbitzuak, errekurtsio berriak (bloga, sare sozialak...), e.a. bertatik bertara ezagutzeko.

Abenduaren 10ean, asteazkena

Arratsaldeko 19:00etan, gazte-razko literatura topaketa berri bat izango dugu. Karmele Jaioren "Las manos de mi madre" liburuaren inguruan jardungo dugu, eta gidaria, oraingo honetan, Ana Merino usurbildarra izango da. Parte hartzeko interesa duen edonorentzat, liburuak iada eskuragarri daude Liburutegian.

Liburutegian non?

Irazu Kalea, 14

Eta sarean:

<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usbil/>

Twitter: @usbilbib

Facebook: Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia Noaua! Komunitatea:

Sutegi Udal Liburutegia

App: Liburutegiak

Hutsik diren komertzioen fatxadak edertzeko plana

Herri gune gisa, "herri merkataritzaren dinamikan zuzenean eragiten duten zenbait hutsune baditu oraindik Usurbilgo herriak eta horietako bat hutsik dauden lokal komertzialek duten eragina da; hutsik, erdi abandonatuak dauden komertzioetako erakuslehoi eta inguruetako fatxadek, kaltea eragiten dute herri gunearen hiri estetikarentzat, eta bertan kokatua dagoen herri merkataritzarentzat ere". Horri aurre egin asmoz, merkataritza-jarduerarik gabe dauden lokaletako erakuslehoiak eta fatxadak atondu nahi dira. Eta horren onuradun egin nahi dutenek eskaera aurkezteko epea dute, azaroaren 20ra arte.



Hutsik diren saltokietako fatxadak txukuntzeko laguntzak eskura daitezke orain.

2013ko ekainean egin zuen Usurbilgo Udalak merkataritzako lokal hutsen errolda. "Jarduerarik gabeko lokalen indizea nahiko altua da: %34a", hala diote udal iturriek.

Horiei zuzendua dago Udalak martxan jarri duen ekimena. Usurbilgo herri merkataritza biziberritzeko "Usurbil Zabalik" egitasmoaren barruan kokatzen da.

Deialdi honen helburua, "Usurbil Zabalik" proiektuan parte hartzeko interesa duten lokal jabeen zerrenda osatzea izango da. Behin zerrenda hori osatuta, interesatuek aurkeztutako lokalek deialdi honetan jasotako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko da eta 2014an Usurbilgo Udalak atonduko dituen lokalak zein izango diren aukeratu da, aurrez ezarritako lehentasun irizpideak erabiliz.

Deialdi hau Usurbilgo herri merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko planean aurreikusitako

merkataritza-eremuaren barruan kokatutako lokalei zuzentzen da:

- Kale Nagusia (6tik 14ra eta 13tik 27ra).
- Errekatziki (2 zenbakia eta 1etik 5era).
- Zubiaurrenea (2tik 10era eta 1etik 5era).
- Bordaberri (1etik 5era).
- Alperroburu (1etik 3ra).
- Kontsejuzarra (9tik 13ra).
- Etxebeste (1etik 15era).
- Irazu (6tik 16ra).

Onuradunen lokalen atontze-lanetatik eratorritako lan guztiak, %100ean Usurbilgo Udalak finantzatuko ditu eta lokal jabeentzat ez da kosturik izango.

Udalak bere gain hartuko dituen gastuak ondokoak izango dira:

- Lokal bakoitzera egokitutako atontze-lanen diseinu grafikoa eta

USURBIL ZABALIK

"Erdi abandonatuak dauden komertzioetako erakuslehoiak eta fatxadak atonduko dira plan honekin"

estetikoa egitea.

■ Berriztatu beharreko erakuslehoi eta fatxaden prestaketa lanak egitea.

■ Lokal bakoitzerako aurreikusitako atontze-lan guztiak egitea (inprimazio eta margotze lanak, leihotan euskarriak ipini, atek margotu, erakuslehoiak apaindu, mural artistikoak margotu eta abar).

Xehetasun gehiago dituzue Udaltzeko Garapen Ekonomiko eta Hezkuntza Sailean edota usurbil.net web orrian.

Eskaera egiteko epea: azaroak 20

Eskaera Usurbilgo Udalean aurkeztu behar da. Eskaera aurkezteko, nahikoa izango da deialdi honen eranskineko eskaera-orria beteta entregatzea. Ondoren, atontze-lanak egiteko aukeratuak izan diren lokaletako lokal jabeek, deialdian jasotako gainerako betebeharrak egiaztatu beharko dituzte.

Eskaerak aurkezteko epea 2014ko azaroaren 20ean amaituko da. Deialdiaren oinarriak Usurbilgo Udalaren webean jarri dira, www.usurbil.net-en.

Zalantzak argitzeko kontaktua: Usurbilgo Udalean, Garapen Ekonomiko eta Hezkuntza Sailean, Josune Mujika (943 371951).

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53


ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

ETXETRESNEN 
KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK

645417665
XABIER
Usurbil

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskainet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Gazte lokalak arautzeko parte hartze prozesua

Herri erdigunean badira hainbat lagun koadrila biltzen dituzten lokalak. Gazte taldeon aisialdirako egoitza hauek erregulatu nahi ditu Usurbilgo Udalak. Baina ez bere kaxa, lokaletako erabiltzaile, jabe, bizilagun edota gurasoekin adostuta. Horretarako, beste herri batzuetan egin duten moduan, gai honi loturiko parte hartze prozesua abiatuko du Udalak asteazken honetan, azaroaren 5ean, Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean. Hitza eman nahi diete gai honetan zeresana duten alde guztiei, beharrak identifikatu, hobetu beharrekoak hobetu, dituzten proposamen eta ekarpenak bildu, eta etorkizunean, elkarbizitzarako arautegi adostu bat izateko.

"Helburua ez da inolaz ere lokalak ixtea"

Parte hartze prozesua abiatu aurreko lanketa bat egin du Udalak. Gai honen inguruko datu bilketa; lanketa horretatik jakin ahal izan dutenez, 10 dira egun Kaxkoaren bueltan ditugun gazte lokalak. Horietatik bederatzirekin hartu emanetan jarri da Gazteria Saileko zinegotzia, egitasmoa aurkeztu eta informazioa biltzeko. Galdetegi bat pasa zaie lokaletako erabiltzaileei; zenbat jende ibiltzen den lokalean, adina, neska edo mutil koadrilak diren... Oro har, lokaletatik kezka nagusi bat jaso dute; ia gazteen topaguneekin arazorik ba ote den eta hala ez bada, parte hartze prozesua zertarako egin galdetzen zuten. Udaletik argitu nahi dute ez dela arazo kontua, ez dutela horregatik abiatuko parte hartze prozesua eta gaineratu dutenez, "helburua ez da



Parte hartze prozesu honen bitartez, araudia osatzeko ekarpenak batu nahi dira (argazkia: urolakohitza.info)

PARTE HARTZE PROZESUA

"10 dira egun Kaxkoaren bueltan ditugun gazte lokalak. Horietatik bederatzirekin hartu emanetan jarri da Gazteria Sailer, egitasmoa aurkeztu eta informazioa biltzeko"

inolaz ere lokalak ixtea".

Elkarbizitzarako araudi bat lantzea baizik. Antza 2020rako arautuak egon beharko dute eta gazte lokalok. Esandakoa, Udalak gai honi garaiz heldu nahi dio.

Ekarpenak biltzeko garaia

Udalak bildutako datuok eta beste hainbat, aurre diagnosi batean jaso dira. Aurre diagnosi hau izango da hain zuzen asteazken honetan bertan abiatzeko den parte har-

tze prozesuan aurkeztuko dutena. Dokumentu honekin bilera bana egingo dute; bat azaroaren 5ean gazteekin, bestea azaroaren 12an helduekin, hots, lokaletako jabe, bizilagun eta gurasoekin. Bakoitzak bere saioan ekarpen eta proposamenak egin ahal izango ditu.

Adostasuna helburu

Ekarpen eta proposamen guztiok Udalak dokumentu batean bildu, eta parte hartze prozesu honetako bigarren fasera aurkeztuko ditu, azaroaren 26an. Bigarren fase honetan, gazteak eta helduak, denek batera beste bi bileretan parte hartzeko aukera izango dute; hilaren 26an eta abenduaren 10ean. Abenduaren 10eko saioan, ordura arte landutako dokumentua eztabaidatu eta hobetu ahal izango dute. Eta batez ere, gai honetan inplikatuak dauden aldeek, adostasunetara heltzeko aukera izango dute.

Zeresana duen oro gonbidatua dago

Asteazken honetan, azaroaren 5ean hastekoa den parte hartze prozesua abenduaren 10ean amaituko da. Hilabetez lau bileretan landutako dokumentua Udalera helduko da. Udalak gerora, gai honen inguruko araudi edo ordenantza bat lantzeko oinarri gisa baliatuko du.

"Dei egiten diegu gaian zeresana daukaten edo gaiarekin arduratuta dauden guztiei (gazteei zein helduei) eta gonbidatu nahi ditugu prozesuan eta bileretan parte hartzera". Diagnosiko informazioa bildu eta bilerak dinamizatzeaz Elhuyar Aholkularitza arduratuko da. Hauxe egutegia:

Azaroak 5, asteazkena

Bilera lokaletako erabiltzaileekin.

Azaroak 12, asteazkena

Bilera helduekin: lokaletako jabe, bizilagun eta gurasoekin.

Azaroak 26, asteazkena

Tailerra gazte eta helduekin: aurreko bileretan landutako diagnosiaren aurkezpena eta ekarpen bilketa. Adostasunak lantzea.

Abenduak 10, asteazkena

Tailerra gazte eta helduekin: aurreko bileretan landutako diagnosiaren aurkezpena eta ekarpen bilketa. Adostasunak lantzea.

Bileren ordua: 19:00.

Bileren lekua: Potxoenea.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala, Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean.



Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

“Beste bi urte beharko nituzke osatzeko”

‘ELIKADURA HIZTEGIA’ ETA ‘ELIKADURA HIZTEGI ENTZIKLOPEDIA’ SORTU DITU EDORTA AGIRREK

Berria egunkarian irakurri ditugu bere artikulak. Beste hedabide batzuetan ere aritu izan da. Hainbat liburu eman ditu argitara. Horietako bat, *Almanaka* (Pamiela, 2003) izenekoa, Ase eta gose web orrian topatuko duzue. Kolaborazioak idazten, liburuak osatzen, horrela hasi zen hiztegi moduko batean pentsatzen. Pentsatzen eta osatzen. Hiztegi Entziklopedikoa ere oso bideratua du. Lan hauek amaitu ondoren, argitara eman nahi ditu. Eta horretan da. Baina oraingoz ez du babesik jaso. Gainera oso argi dauka helburua: “Kutxabankek akzionisten artean banatzeko ez dut egin nahi. Aderantziz, nik denon eskura jarri nahi dut”.



NOAUAIn izan zen Edorta Agirre, bi lanen berri ematen.

Hiztegiarena garrantzitsua izanik, entziklopediaren eskaintza haratago doa. Datu osagarri asko ematen dira. Osatuagoa da edukiz. Beste sakontasun bat duela, alegia.

Edorta Agirre. Cerdo txerri edo urde dela esateko balio du hiztegiak. Ondo. Biziduna bada, latinezko izen binomio bat, izen zientifiko bat izango du. Euskal sinonimoak ere ematen ditugu eta espainolez, frantsesez eta ingelesez dituen balio-kideak. Etimologiari ere begiratzen diogu.

Astronomian, informatikan, zuzenbidean, biokimikan... badute entziklopediarik, elikaduran zergatik ez?

Egunean hiru aldiz jaten dugu eta jatetxe batera joaten bagara, eta “atzo alitak jan nituen, eta gero *muslitos de pollo*...”, ba alitak edo *muslitos de pollo* afaltzen badugu gaizki goaz. Gureak egin du.

Eta hortxe gabilta. Hori ez da lotsagarria, lotsa norberak sentitu behar du, baina amo-

HIZTEGIAREN PREMIAZ

“Jatetxe batera joan eta ‘atzo alitak jan nituen, eta gero *muslitos de pollo*’... Ba alitak eta *muslitos de pollo* erabiltzen baditugu, gaizki goaz. Gureak egin du”

rragarria bada. XVI. mendean unzigintzan-eta punta puntan genbiltzan euskaldunak. Eta euskaraz. Erdarara jo gabe. Orain zertan gabilta? Haiek baino gutxiago al gara gu? Baliabide gehiago, komunikatzeko ahalmen (tekniko) gehiago eta informazio gehiago dugu. Baina... Horrek amorratzen nau: euskaldun izateaz lotsatze hori.

Noiz hasi zinen hiztegia osatzen?

Lau urte pasa ditut lan hau eginen. 2007an edo hasi nintzen baina lau urteko lana dago hemen. Eta beste bi urte beharko

nituzke osatzeko.

Ez dut xentimorik jaso. Baina paperean jartzeak kostu batzuk dauzka.

Banku batekin egin daiteke, baina Kutxabankek akzionistentzat ez dut egin nahi. Euren apaletan edukitzeko, sekula santan ez irekitzeko. Ez. Alderantziz, nik denon eskura jarri nahi dut.

Etsita al zaude?

Ez, ez. Oker daudenak besteak dira! Badakit kontraturatzen ari naizela baina pelikula ez da bukatu. Pelikula ez da bukatu. Hurrengo belaunaldietan bestelako ikuspegia izango dutela espero dut, ez hauena bezain prosaiko. Interesa izango dutela egiazko euskal sukaldaritzaz ezagutzeko, ez bigarren eskuko euskal sukaldaritzaz.

Muxutruk ari zara, baina lan handia du honek guztiak.


Bai, lan asko dago hemen. Pasioa ere bai. Beste batzuk futbolarekin erotzen dira. Nik hauxe egin dut urteotan.

Elikadura Hiztegia

125 orrialde ditu Elikadura Hiztegiak, eta sei zutabetan dago banatuta. Lehenengo zutabetan, euskarazko hitza ageri da; ondokoan, sinonimoak; hirugarrenean, latinezko adiera; laugarrenean, gaztelarazkoa; bosgarrenean, frantsesezkoa; eta azkenekoan, ingelesezkoa.

Elikadura Hiztegi Entziklopedikoa

Elikagai hau nondik dator? Nola kontsumitzen da? Zalantzak argitu eta jakinmina asetzeko argitalpen oparoa.



Oraingoz, sarean bakarrik dago hiztegi entziklopedikoa irakurgai.

Askatasuna plazako jolas parkea, egoera desegokian

2015EKO UDAL AURREKONTUA ONARTU ETA SEGITUAN BERRITU NAHI DU UDALAK

Asteazkena. Udazkene-ko hego haizeak gozatzen du eguerdia. Jendea dabil Askatasuna plazan. Azokako postuetan, eta jolas parkean. Hurrekin jolasean dabiltzan gurasoak ordea, kezkatuta daude. Txirristra eta kolunpioa arriskutsu daudela irizten diote eta horren berri eman asmoz, parkera hurbiltzera deitu gaituzte.

Kolunpioan dilin-dalan edota piraten barkuaren inguruan. Batean zein bestean dabiltza haurrak, gurasoen begiradapean. Baina inor ez da txirristrara igotzen.

Urrutitik ez da ezer arrarorik sumatzen. Dena dago bere tokian. Baina gerturatu, eta begibistakoa da jolastokiak asko duela hobetzeko.

Txirristra, haur txikiarentzat arriskutsu

Kezkagarriena txirristra da. Ipin zenean, eskaileretatik igo eta bertatik jaisteko hiru adar zituen. Hiru tokitatik, hiru arrapaletatik jaitsi zitekeen. Bat, txirristra baten ohiko jaitsiera, ondo antzean dago. Azpiko torlojuak erdi askatuak ditu baina erabilgarri dago oraindik. Beste bi jaitsierak, ordea, izorrotuta daude. Horietako bat egur xafra batekin itxi dute, baina besteak Udalaren zinta bat du, hortik jaitea debekatuta dagoela iradokiz edo. Eta azken hau da gurasoentzat kezkagarriena. Haur txikienek ez dutelako zertan ulertu behar zinta horren funtzio didaktikoa, eta jolasean direla, zinta horretatik behera erortzeko arriskua handia dutelako.

Kolunpioa

Baina txirristra ez da izorrotuta dagoen jolas bakarra. Kolunpioa eserleku bakarrekin egon da uda osoan.



Irudian agertzen diren jolastoki gehienekin kezkatuta agertu dira hainbat guraso. Eta parkeko lurrarekin ere bai.

TXIRRISTRRA

“Ipin zenean, hiru arrapaletatik jaitsi zitekeen. Bat, ondo antzean dago. Azpiko torlojuak erdi askatuak ditu baina erabilgarri dago oraindik. Beste bi jaitsierak, ordea, izorrotuta daude”

Duela gutxi ipini dute eta orain bi dira kolunpioan ibili daitezkeen umeak. Kontua da kolunpioaren oinarria mugitu egiten dela. “Ume handi bat ibiltzen denean, oinarriko egur bat atera egiten da”, hala esan digu Saioa Fernandezek, parkean ibiltzen den gurasoetako batek.

Lurra, zikin

Jolastokiak ez daude ondo. Eta guraso hauek azaldu digutenez, lurraren egoera ez da ona. “Eurria egiten duenean ur asko hartzen du lurra, jada ez du ura xurgatzen, eta haurrak asko zikintzen dira”. Lurraren plaken tartetean lizunak daude.

Askatasuna plazako eserlekuak ere zikinak daudela diote.

Idatzia udaletxean

Jolastokiaren egoeraz kezkatuta, Saioa Fernandezek idatzibat aurkeztu zuen udal erregistroan. Irailaren 10eko bere idatzian, Askatasuna plazakoa zein Kale Nagusiko haur parkeak aipatzen ditu. Azken honetan gainera, zarata ateratzen dute kolunpioek.



Jolastoki honen egoerak piztu du gurasoen kezka.

Jolastokiak berritzeko asmoa du Udalak

Zerbitzu eta Obra sailarekin harremanetan jarri gara eta onartzen dute Askatasuna plazako “haur jokoen egoera ez dela egokiena eta momentuz minimotan mantentzen ditugu”. Jone Urdanpilleta zinegotziaren hitzak dira hauek.

“Ulertzen dugu gurasoen kezka eta nahia, baina prozedura jakin bat jarraitu behar da eta denbora eskatzen diegu”. Askatasuna zein Kale Nagusiko jolas guneetako jokoak berritzeko asmoa dute baina “osotasunean hartu beharreko erabaki bat dela” esan digu Urdanpilletak.

Gurasoen eskaerak eta egungo egoera kontuan izanda, “mahai gainean ditugu proposamen eta aurrekontu ezberdinak, datorren urteko aurrekontuetan txertatzeko”. Hauen kostua kontuan izanik, lizitatu egin behar dira eta 2015eko aurrekontuak onartzen diren momenturako, pleguak prest izan nahi ditu udal gobernuak, lehenbailehen jokoak berritzea esleitu eta ezartze lanak egiteko. “Lizitaziorako jokoen ezaugarri nagusiak gurasoen ekarpenekin finkatu nahi genituzke”.

“Piano bat bertsoan” emanaldiarekin hasiko da NOAUA! Kulturaldia 2014

Kontzertua ikustera doazen guztiak kantuan jarri nahi dituzte. Hori da emanaldi hau eskaintzen duten artisten helburua. Horretarako publikoak berak jarriko ditu gustuko dituen bi euskal kanta, eta otar batetik bat-batean paper bat hartu eta han jartzen duen pieza jo beharko dute. Ordenagailu batean letra pila bat egongo da, eta handik, pantaila baten bidez, publikoak abestu ahal izango du.

Inprobisazio kontzertu bat izango da, beraz, baina berezia: publikoak izango duela uneoro protagonismoa, bai kantak aukeratzeko, baita abesten ere.

Piano bat bertsoan

Partehartzaileak: Joana Ortega kantaria, Sebastian Ustarroz



Ostiral honetan, gaueko 22:00etan hasiko da “Piano bat bertsoan” ikuskizuna.

gitarrajolea eta Jagoba Astiazararen pianojolea.

- Azaroak 7 ostirala.
- Sutegin, 22:00etan.
- Sarrera 7 euro (alde aurre-

tik 6 euro Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!n). Bazkideek 4 euro, alde aurretik eta soilik NOAUA! Kultur Elkartearen.

Kantu berriekin dator Petti

Disko berria besapean, hala iritsiko da Berako kantaria Sutegira. Igande honetan arituko da, arratsaldeko 19:00etan hasita. Azken aldian ezagun egin da “Sortuko dira besteak”-en moduko ikuskizunengatik. Baina aurretik ibilbide luzea du egina. Bakarka bost disko kaleratu ditu, ia denak Gaztelupeko Hotsak ziguarekin, eta Anari, Txuma Murugarren, Rafa Rueda edota Barrence Whiffield kantariekin partekatutako diskoak ere baditu. “Pettiren ezaugarri nagusiak, erraietatik ateratzen den ahots urratu eta sakona, bluesaren arimaz kutsaturiko kantu ezkor eta ilunak, gitarra jotzeko trebezia eta taula gaineko indar basa dira”, badok.info web orriak dioenez.



Igande honetan arituko da Petti.

Piano bat bertsoan


- Azaroak 9 igandea.
- Sutegin, 19:00etan.
- Sarrera 7 euro (alde aurretik 6 euro Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!n). Bazkideek 4 euro, alde aurretik eta soilik NOAUA! Kultur Elkartearen.

“Emak bakia” filma, larunbat honetan Sutegin

Oskar Alegriaren dokumentalak 14 sari jaso ditu, eta hamabi hizkuntzataraz itzuli dute.

Emak bakia

- Azaroak 8 larunbata.
- Sutegin, 19:30ean.
- Sarrera 7 euro (alde aurretik 6 euro Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!n). Bazkideek 4 euro, alde aurretik eta soilik NOAUA!n.



Larunbat honetan, 19:30ean Sutegin.

Eskura ezazu NOAUA! Kulturaldiko bonua eta merkeago aterako zaizu

NOAUA! Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen zikloa da Kulturaldia. Aurtengo eskaintza ere, ekitaldi josita dator. Saiotara joateko sarrerak alde aurretik erosi daitezke merkeago Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!n. Eta are merkeago aterako zaizu, NOAUA!ko bazkide bazara. Aurten, ordea, erraztasun gehiago emateko asmoz, Kulturaldia Bona jarri dugu martxan.

25 eurotan, ekitaldi denetaz gozatzeko aukera izango da Bonuaren bitartez. Behin erosi eta kitto, ekitaldi denetarako txartela poltsikoratuko du. Eta gainera, modu merkeagoan.

NOAUA!ko bazkideari Bona 20 eurotan aterako zaio.



25 eurotan eskura daiteke bonua. Bazkideentzat, merkeago: 20 euro.

Desentxufatuak antzezlan eskainiko dute “munduko euskaldunberririk zaharrenek”

Rockero zaharren modura, euskaldun berri zaharrak ez dira inoiz hiltzen. Oraindik ere euskaldun berri dira Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreak, eta segitzen dute euskararekin umorea egiten ere. Rockeroek egin ohi duten modura, lan arrakastatsuenekin bilduma bat osatu dute: “Desentxufatuak”.

Duela hamar urte estreinatu zituzten “Euskara sencilloaren manifestoa” eta “Larru hai-zetara” lanen zati onenen bilduma egin dute. “Argindar handiegia behar ez den antzokietarako. Atrazzo konplikatirik gabe, eta agertoki txikietarako”, Patxo Telleriak hedabideen aurrean esan izan duenez. Urte hasieran eskaini zuten lehen aldiz Abadiñon,



Azken urteotako obren zati onenak batu dituzte antzezlan berri honetan.

eta geroztik plazaz plaza aritu dira. Azaroaren 15ean larunbata, Sutegira iritsiko dira.

Desentxufatuak

Egilea: Patxo Telleria.

Aktoreak: Mikel Martinez, Patxo Telleria.

Ekoizpena: Ez dok Hiru / Tar-tean Teatroa.

■ Azaroak 15 larunbata.

■ Sutegin, 22:00etan.

■ Sarrera 10 euro (aldez aurretik 9 euro Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!n). Bazkideek 7 euro, aldez aurretik eta soilik NOAUA! Kultur Elkartearen.

Kataluniari buruzko hitzaldia, Mikel Aramendi eta Martxelo Otamendiren eskutik

Azaroaren 9a egun seinatua izango da Katalunian. Zertan geratuko da egun horretarako deitua izan den bozketa? Eta horren ondoren, zer gertatuko da Katalunian, azaroaren 10etik aurrera?

Hori guztia argitzeko balio dezake azaroaren 13rako antolatutako dugun mahainguruak. Mikel Aramendik eta Martxelo Otamendik gertutik jarraitu dute Kataluniako prozesua.

Mikel Aramendik hedabide ezberdinetan kolaboratu du. Gaur egun, Euskadi Irratiko solasaldietan parte hartzen du, eta Gara eta Berria egunkarietako ohiko kolaboratzailea da. Nazioarteko politikan aditua da.



Igande honetan bozka ematera deituak izan dira Katalunian.

Martxelo Otamendi Euskaldunon Egunkariaren zuzendaria izan zen, 1993ko ekainaren 9tik 2003ko otsailaren 20an bortxaz itxi zuten arte. Gaur egun,

Berria egunkaria zuzentzen du.

Katalunia hizpide

■ Azaroak 13 osteguna.

■ Sutegin, 19:30ean.

Mendi ibilaldia, Usurbildik Andoaingo Garate estudioira

Buruntzaldeko ibilbideetan murgiltzeko aukerari heldu diogu aurtengoan. Usurbil eta Andoain lotzen dituen bide bat Andoaingo Garate estudioetik igarotzen denez, geldialditxo bat egingo dugu bertan. Kaki Arkarazoren estudioa da Garate, eta berak irekiko dizkigu estudioko ateak. Eta bide batez, bere lanaren berri emango digu.

■ Azaroak 16 igandea.

■ 8:30ean frontoian.

■ Herritar orori zuzendua.

■ Ibilbide amaieran, itzulera autobusez (6 euro) edo oinez egin ahal izango da. Autobuserako izena aurrez eman behar da, telefonoz: 943 360321. Emailaz: elkartea@noaua.com

Manex Torreal dai: “Katalanek euskaldunekiko atxikimendu berezi bat dute”



“Ez dut toki askorik ezagutzen oraindik, baina niretzat Bartzelonako tokirik politenetako bat Montjuïc da”.

Asteburuko arreta gune nagusia izango da Katalunia, iganderako deitua dagoen galdeketaekin. Inguru haietan ere bada euskaldunik, eta nola ez, baita usurbildarrak ere. Tartean, urtebetarako Bartzelonara ikastera joan den Manex Torreal dai gaztea. NOAUA!ko “Usurbildarrak munduan” ataleko hurrengo elkarrizketatua.

Ikasketengatik joan zara urtebetarako Bartzelonara. Zer ikasten zabilzta?

Manex Torreal dai: Lehen Hezkuntzako gradu (majisteritza) hirugarren urtea ikasten nabil, Bartzelonako Unibertsitate Autonomikoan.

Nolatan suertatu zitzaizun hara joateko aukera?

Unibertsitateak Seneca/Sicue programarako plazak ireki zituen eta urte batzuk lehenago berdina egin zuen lagun batek aholkatuta, apuntatzea erabaki nuen. Hasiera batean ez nengoen ziur etorriko nintzen edo ez, baina programan onartua izan nintzela esan zidatenean,

MANEX TORREALDAI

“Katalanak oso interesatuta daude Euskal Herriarekin eta galdera asko egiten dizkirate bertako gauzei buruz”

benetan etortzeko aukeran pentsatzen hasi nintzen, eta hemen nago!

Herri txiki batetik hiriburu handi batera bizitzera. Bizimodu aldaketa handia eragin dizu?

Bai, baina ez dakit aldaketa herritik hirira pasatzeak edo gurasoekin bizitzetik bakarrik bizitzera ekarri didan. Nahiz eta hiri handi bat izan, auzo mailan mugitzen naiz eguneroko bizitzan, unibertsitate joaterakoan izan ezik, eta auzo honek herri kutsu handia duenez, askotan ez naiz kontzienten hiri batean bizi naizenik.

Esku zabalik hartzen zaituen hiriburua omen da Bartzelona. Euskalduna izanda are gehiago?

